



18 Zkia.: 2019ko Apirila

Artikutzako ttanttak

MENDEURRENA OSPATZEN

Artikutzako ttanttak

Aurkibidea

MENDEURRENA.....	3
URA. ALDAKETEZ BETETAKO 100 URTE	5
BASOA, 100 URTEREKin BIZITASUNA AREAGOTUZ	8
ARTIKUTZA IRUDIETAN	12
ERRAIETATIK.....	13
EHUN URTEKO BESTE LAGUN BATZUK	14
SUAREN EPELEAN.....	20
IRUDIEN GALERIA	21

MENDEURRENA

Dagoeneko, ehun urte bete dira Donostiako Udalak Artikutza erosi zuenetik, eta, hori ospatzeko, buletin honen edizio berezia prestatu dugu; zenbait kolaboratzaile gonbidatu ditugu parte hartzera. Garai hauetan, aldaketek eta ospakizunek egiten dute bat, baita iraganari, orainari eta etorkizunari egindako begiradek ere. Eta begirada bakoitzak bere ikuspegia dakar. Lagun askok egin lezakete beren ekarpena gure paraje txiki honen historiaren berri emateko. Istorio horiek guztiek, dudarik gabe, oihartzuna dute oraindik ere Artikutzan ezkutatzen diren txoko zoragarrietan.




Egun elurtua Artikutza. ARGAZKIA: Iñaki Uranga.

Ospakizun berezi horretan murgiltzeko, Ane Oyarbide Donostiako Udaleko Ingurumen Zinegotzia gonbidatu dugu lehenbizi.

Kaixo, Ane. Orain 100 urte, Donostiako Udalak erabaki garrantzitsu baina eztabaidatu bat hartu zuen, eta Artikutza erosi zuen, uraz hornitzeko zuen arazo larriari irtenbidea emateko. Denboraren joanak ematen duen ikuspegia aintzat hartuz, nola balioetsiko zenuke erabaki hura? Zure ustez, egokia izan zen?

Duela 100 urte, Donostiako Udalak Artikutzako lursaila erosi zuen, donostiarrak urez hornitzeko. Horretarako, Enobietako urtegia eraiki zen, baina, zoritxarrez, txikiegia suertatu zen, eta Añarbeko urtegiak hartu zuen eginkizun hura. Baina, aurreikuspenetan egindako akats horren truke, babestutako ingurune natural pribilegiatu hori dugu gure esku; beraz, argi eta garbi, irabazle atera gara.



Ane Oyarbide. Argazkia: Donostiako Udala



Gerasungo Atakako Cromlech-a. Argazkia: Asier Santana

zuzen ere, hau da gure lanetako bat: presa eraistea, urtegiako ur guztia hustu eta gero, eta bermatzea ekosistemari eusten zaiola.

Azkenik, zure ustez, etorkizunean bermatuta al dago Artikutzako balio naturalen kontserbazioa?

Abantailak bakarrik ikusten dizkiot inguru horri eusteari, mendi-basoez, ibaiez eta errekez beteta baitago, eta, hala, espero izatekoa da etorkizunean ere denok bat etortzea gai horretan. Konfiantza piztu zait ikusita gazteek beren ahotsak altxatu dituztela ingurumenari buruzko kezka adierazteko eta desafio horrekiko ardura hartu dutela.

Kontuan hartu behar dugu Añarbeko presa eraikita eta, orain, Enobietako presa eraitsi eta gero desagertu egin direla Artikutza erosteko izan ziren arrazoiak. Beraz, zer-nolako helburuak ditu orain udalak egiten duen kudeaketak?

2016an, Artikutza Natura 2000 Sareko (habitata eta espezieak babesteko naturaguneen Europar Sarea) Babes Bereziko Eremua izendatu zen; izan ere, naturaren benetako altxorra da, bertako espezieak baitira nagusi landare-paisaia, hala nola pagoak eta haritzak. Fauna ere oparoa da, eta, horrez gain, lau ibai eta hainbat erreka eta lats biltzen ditu. Laburbilduz, ia birjina den paradisua da, eta udalak hura kontserbatzeko betebeharra du urtegia hustu eta gero. Eta, hain



Enobieta bailarako bistak, Elutsatik. Argazkia: A. Santana.

URA. ALDAKETEZ BETETAKO 100 URTE

Ura izan zen eta izango da Artikutzako elementurik garrantzitsuenak. Arturo Elosegik EHUKo Ekologia irakasle eta doktoreak oso ongi ezagutzen du Artikutza eta ongi daki zein garrantzitsua den han ura. Askotan bisitatu gaitu eta, gaur egun, urtegia husteko lanen inguruan ari den ikerkuntza-taldea zuzentzen du.

Arturo, ideia garbi bat izan dezagun, kontatuko diguzu nolakoak ziren edo izan zitezkeen erreak eta ibaiak, edo, oro har, Artikutzako urak orain dela 100 urte?

La ez dago Artikutzako ibaiei buruzko orduko daturik; beraz, gauza batzuk bakarrik ondoriozta daitezke modu ez-zuzenean.

Badakigu XX. mendearen hasieran ura kutsatuta zegoela eta jendea

gaixotu egiten zela, besteak beste, tifusarekin. Badakigu orduan basoaren azalera txikiagoa zela eta nekazaritza eta abeltzaintza dezente gehiago zegoela, eta jende gehiago ere bizi zen; beraz,

pentsatzekoa da higadurata handiagoa izango zela eta uraren kalitatearekin arazoak izango zirela azierengatik. Horrez gain, badakigu bazeudela meategi handi samarrak eta ingurunearekiko kontzientzia gutxi; beraz, ia seguru da kutsadura-mailak handiak izango zirela.



Arturo, hustu berri den Enobietako urtegiaren lanean. Argazkia: A. Elosegik



EHU-ko taldea lan eta lan, urtegiaren. Argazkia: A. Elosegik.

Eta balioespen orokorra eginda, zure ustez, nola eragin dio Artikutzari 100 urtez Donostiako Udalaren zaintzapean egon izanak?




Urak hilik dagoen egurra pilatzen du, beste bizidun batzuentzat aukera berriak sortuz. Argazkia: A. Elozegi.

Ikuspegi naturalistikoa aintzat hartuta, Artikutza harribitxi handiena da. Gure ekosistemetako bioaniztasun-, naturaltasun- eta heldutasun-mailak oso altuak dira. Gure inguruan, oso leku gutxitan aurki daitezke Artikutzan bezain zaharrak diren zuhaitzen eremuak, oraindik zutik edo oihanpean dagoen egur hila, ibai bazterretako egur-pilaketa handiak, baita naturaltasuna erakusten duten beste adierazle batzuk ere. Horiek oso garrantzitsuak dira ahalik eta zehaztasun handienaz jakiteko zer-nolako kontserbazio-egoera lehengoratzen saia gaitezkeen inguru hurbileko beste leku batzuetan.

Etorkizunari begira, zein desafio dira garrantzitsuenak?

Une honetan, aipatu den bezala, Enobietako presa eraisteko lanean ari dira. Desafio handia da hori ongi egitea, alegia, lehengoratzea sustatuz eta horrek ekar ditzakeen inpaktuak gutxituz.

Abeltzaintza-kudeaketa ere erronken artean dago. Araudiaren arabera, Artikutzan aziendak bazkatu ezin badira ere, ardiak, behiak eta behorrak ikusten dira. Ez da azienda-dentsitatea handia izaten, baina kontuan hartuta ibarrean belar gutxi dagoela, eragin handi samarra du zuhaitzen ernamuietan, eta, hori dela eta, nahikotxo atzeratzen da zuhaitz zaharrak erortzeagatik basoan sortzen diren soilguneen lehengoratzea. Aziendak arazo handi samarra izan litezke Enobietako urtegiak estalitako ingurua berriz landareztatzeko; beraz, azaleratzen ari diren sedimentuetara sartzea eragotzi behar litzaieke.



Soldanella villosa, hezetasun konstanteko tokietara loturako landare babestua, Artikutzako sinbolo bat dena. Argazkia: A. Santana

(baso-ustiaketa nahiz turismo-ustiaketa) erori gabe.

Eta bukatzeko, zure ustez, Artikutzako sistema hidrikoek badute berezitasunik edo bitxikeriarik?

Desman iberikoaz gain, Artikutzako ibaietako ornogabeen faunak aniztasun izugarri handia du, eta naturaltasun handiko habitat fisikoa ere badago; horiek eredu gisa erabil ditzakegu beste ibai batzuk lehengoratzeko helburuak zehazterakoan. Adibidez, Artikutzako erreka ingurukoak baino askoz gutxiago uhertzen dira, eta horrek erakusten digu arroaren higadura-maila txikia dela landare-estalki bikainaren ondorioz.

Iberiar desmanaren kudeaketa da beste erronketako bat. Artikutzan, espezie horren populazio handi samarra dugu; gure ibaietako harribitxietako bat da, baina hemengoa beste populazioetatik isolatuta dago, Zentral hidroelektrikoen eta Añarbeko urtegiaren eraginez; adibidez, Urumeako goi-ibarrean badaude populazio batzuk. Ez dugu daturik, baina pentsatzekoa da Artikutzako desmanek odolkidetasun-maila handia dutela horrenbeste urtez isolatuta egon eta gero, eta, beraz, interesgarria litzateke programa bat abian jartzea banakoak lekualdatzeko.

Beste maila batean, Donostiako Udalak badu beste desafio bat: mende batean zehar egin duen kontserbazio-kudeaketarekin aurrera segitzea, gehiegizko ustiaketaren arriskuan

BASOA, 100 URTEREKIN BIZITASUNA AREAGOTUZ

Gaur egun, Artikutzako basoek erakartzen gaituzte gehien lehen begi-kolpean. Harmoniaz beteriko anabasa, orekatutako aldakortasuna, hango isiltasuna eta soinuak... Edertasun eta naturaltasun liluragarria transmititzen duen ingurua sortzen dute horiek guztiek. Eta, gainera, milaka biztanle ditu; horietako batzuk, ezkutuak. Alberto Castro entomologian eta ekologian espezializatutako biologoa Artikutzako leku gordeenetara ailegatu da. Basoen diagnostikoak egitea da bere lanetako bat. Eta honela egiten ditu: zehazten du armiarmen eta kakalardoen zer espezie dauden eta zenbat, eta zer gertatzen den beren populazioekin. Dirudienez, basoaren egoeraren adierazle bat dira eta baso-aniztasunaren kontserbazioa kudeatzeko jarraibideak ematen dizkigu. Harekin mintzatu gara.

Alberto, badakit lan asko egin duzula Artikutzan. Posible bada, kontatuko diguzu nolakoa zen edo nolakoa irudikatzen duzun Artikutza orain dela 100 urte?

Artikutzako azaleraren erdia zuhaitzik gabekoa zen, eta erdia baino gehixeago zuhaizdun larreak ziren, non aziendak ibiltzen baitziren hara-hona eta egurgile batzuek zuhaitz batzuk mozten baitzituzten oraindik ere. Abeltzaintzak eta inausaldiek nagusiki irekia zen basoa sortzen zuten, belar askorekin eta eguzkitsua; argimutil-formako zuhaitzak izaten zituen, bizpahiru metroko altueratik aurrera edo oinarritik bertatik adarkatuta, lepatuta zeudelako. Lepatutako zuhaitz horietako gehienak haritzak ziren, baina pagoek eta gaztainondoek ere hartzen zuten eremu handia. Basorik gabeko ingurua Artikutzako ekialdean eta hegoaldean zegoen batez ere. Baliteke garai horietan Artikutzak inoiz izan duen baso-estaldurarik txikiena eduki izana.

Konta iezaguzu. Zer aldaketa garrantzitsu gertatu dira azken 100 urtean?

Aldaketarik ikusgarriena basoaren berritzea izan da, izan ere, gaur egun, ia Artikutzako azalera guztia hartzen du, eta, batez ere, pagoez osatutako baso itzaltsua da. Basoaren lehengoratzeko hori, batik bat, bilakaera naturalarengatik gertatu da, baina baita Udalak basoberritzeko egindako ahaleginarengatik



Alberto, lan egun batean Artikutzan. Argazkia: A. Castro.

ere, bereziki XX. mendeko 20ko eta 70eko hamarkadetan. Beharbada, zati batean kanpoko espezieekin basoberritu izana da aipatzekoa den arazo bakarra. Hala ere, kanpoko espezieekin basoberritutako eremua ez da oso handia, eta azken hamarkadetako kudeaketak hura gutxitzeko joera hartu da eta



Alberto Castro, lurrean hilik dagoen zuhaitz eder batean, orain bizitza berriak mantentzen dituen. Argazkia: A. Castro.

bertako basoarekin ordezkatu. Beste arazo posibleetako bat da pagadia zabalduz joan dela hariztien kaltetan. Hariztiekin pagadiak baino espezie gehiago hartu ohi dituzte. Hala ere, Artikutzako haritz eta gaztainondo zahar gehienak pagoetarako onuragarriagoak ziren eremuetan landatu eta mantendu ziren. Harizti eta gaztainadi horiek utzi eta gero, pagoak modu naturalean lehengoratu dira leku horietako askotan. Zorionez, espezie exotikoekin egindako ordezte horiek beste batzuekin ordezkutzen direnean, haritza eta bertako beste espezie batzuk sustatu egiten dira.

Abeltzaintza-karga gutxitu izana ere gako izan da aldaketa horretan. Afera horren inguruan, auzi historikoak izan dira Donostiako Udalaren eta mugakideak diren herrietako abeltzain eta artzainen artean. Alde batetik, Udalak, lurraren jabea izanda, debekatu ohi zuen aziendak egotea, ura kutsatzeko arriskuarengatik. Beste alde batetik, abeltzainek herri-basoak erabiltzeko eskubide historikoak aldarrikatu izan dituzte. Tira-bira horietan sartu gabe, egia esan, 1919tik aurrera abeltzaintza-karga murriztu denez, azkartu egin da basoa lehengoratzeko prozesua. Murrizketa aipatu dugu; izan ere, debekua egonda ere, beti izan dira aziendak Artikutzan. Abeltzaintzaren nolabaiteko presentzia onuragarria izan daiteke bioaniztasunerako, zuhaizdun larre batzuk mantentzen dituenek, habitat gehiago sortzen direlako. Hala ere, hori lortzeko baso trinkoari eta uraren kalitateari eragin gabe, ikertu behar litzateke zenbateko abeltzaintza-kargak jasan daitezkeen eta aziendak antolatzeke plan egokiekin

bete. Artikutzako Babes Bereziko Eremuko kudeaketa-planak horretara bideratutako neurriak biltzen ditu, horrekin bat etorritz, eta erakundeen arteko akordioak aurreikusten ditu abeltzaintza arautzeko.



Carabus rutilans, urre-kakalardoa, iberiar eta frantziar basoetako harrapari eta bizilaguna, orbelean bizitzera eta zizareak nahiz harrak ehizatza ongi egokitua. Argazkia: A. Santana.

Beraz, badirudi ongi balioesten dituzula azken 100 urteak eta Udalak egindako kudeaketa...

Bai. Bikain, natura kontserbatzeari dagokionez. Donostiarren edateko uraren purutasunari eta maileri eusteko, zuhaitzak lehengoratzeko motibazioa egon da, eta, hori dela eta, lurralde horren zati handiena ustiatu gabe mantendu da 1919z gero. Hala, bertako basoa naturalki lehengoratu da eta haren egiturazko konplexutasuna handitu egin da. Horrek esan nahi du baso berean batera ageri direla zuhaitz handiak nahiz txikiak, eta biziak nahiz hilak; horrez gain, egur hila oihanpean pilatuta egoten da, eta itzala, etenda, zuhaitz handiak modu naturalean erori eta hil eta gero. Baso mota berean (pagadia, hariztia, mistoa, etab...), gaur egun ere handitzen ari da egiturazko konplexutasun hori, arian-arian, eta gero eta habitat askotarikoagoa sortzen du; beraz, gero eta espezie-kopuru handiagoa dugu, florari, faunari, onddoei baita bestelako izaki bizidunei dagokienez ere.

Eta etorkizunari begira, zein izan daitezke desfiorik handienak?

Artikutza populazio-dentsitate eta giza jarduera handiko lurraldeaz inguratuta dago. Egoera horregatik bakarrik bada ere, gizarte-intereseko erronka handia da hango natura-balioak kontserbatzea. Espero



Okilek guztiz zulatutako pago hila, oraindik zutik. Argazkia: A. Santana.

dezagun horrelako ingurune betean paraje hau mehatxatzeko moduko presio handirik ez egotea, baso-bioaniztasunaren gordailua izaten jarrai dezan.


Beste alde batetik, lehenago ere aipatu dugu posible dela nolabaiteko abeltzaintza-kargarekin bateratzea, onuragarria izan baitaiteke egoki bateratuz gero. Halaber, lurraldearen erabilera historikoen herentziarengatik, badago zuhaitz zaharrenen eta hurrengo helduenen arteko belaunaldi-eten bat. Kasu horretan aztertu beharko da helduak zahar izatera ailega ote daitezkeen zaharrenak desagertu baino lehen, eta, hala ez bada, horrekin lotutako neurriak hartu.

Edozein kasutan, garrantzitsua da bertako baso-habitatetik helduak eta beren garapen naturala izaten jarraitzea; izan ere, prozesu horiek Artikutzako basoen erresistentzia susta dezakete aurre egiteko zailak diren beste aldaketa batzuekiko, hala nola klima-aldaketatik erator daitezkeenekiko.



Onddo askok, aradagai hauek bezala, Artikutzan erraz aurki daiteken hildako egurra probesten dute. Argazkia: A. Santana.

ARTIKUTZA IRUDIETAN



Egunsentiko lehen argi-izpiak Urdallueko ibaira heltzen. Argazkia: Asier Santana.

ERRAIETATIK

Garai bateko estazio hidroelektrikoa

Orain dela aste batzuk, mezu elektroniko bat jaso genuen; honela zioen: *Esbastikak Artikutzan.*

Mezuaren gaiak inpresioa eragin zigun lehen begi-kolpe batean. Aitor Sarmiento izeneko bisitari batek argazki hauek helarazi zizkigun; Artikutzatik 100 metro eskasera dagoen zentral hidroelektrikoan argi eta garbi ikus zitekeen esbastika bat, hango makinetako saltzailea eta ekoizlea identifikatzen duen txapan. Kontua da ez dela lehenbiziko aldia horrelakoak agertzen direla. San Adrià del Besós herrian, garai batean elektrizitatea ekoizten zuten instalazioetan ere ageri dira.



Honela dio *La Vanguardia*ko artikulua batek (2013/05/26, 58-59 or.): “hemen badaude Hitlerren okupazioaren garaian Belgikan egindako makinak, esbastika naziarekin markatuta”. Ez dakigu hala den zehatz-mehatz, edo hemengoen jatorri bera ote duten. Kontua da Artikutzako makinek ez dutela inolako zerikusirik ez Hitlerrekin, ezta nazismoarekin ere. ASAP suediar konpainiak fabrikatu zituen zentral zaharrean oraindik dauden makinak, eta, bitxia bada ere,

hark esbastika erabiltzen zuen logo gisa. Azken batean, oso sinbolo zaharra da, mundu osoan zehar kultura askotan agertu dena, eta haren lehen aztarna arkeologikoa k.a. V. mendekoa da. Baina... lehengo mendeko historiak ospe txarra ekarri zion. Izan ere, iturri batzuek diotenez, konpainiak 1933an utzi zion logoa erabiltzeari, nazismoarekin lot ez zezaten.

Hemendik, eskerrak eman nahi dizkiogu Aitorri eman zigun “ikaratxoarengatik” eta laguntzarengatik.

EHUN URTEKO BESTE LAGUN BATZUK

2018. urtean ere, beste urteurren batzuk ere izan ziren. Ordesa eta Monte Perdido Parke Nazionalak eta Europako Mendiak Parke Nazionalak 100 urte bete zituzten izendapena jaso zutenetik. Alderdi askotan, oso desberdinak dira gure parajetxotik, baina gauza komun eta antz ugari ere baditugu. Hiruko omenaldi bat egin nahi izan dugu eta Donostiako publikoarekin besteen esperientzietako batzuk partekatu, Manuel Montes Ordesa eta Monte Perdido PNko egungo zuzendariaren eta Ángel Serdio Europako Mendiak PNko zuzendariaren eskutik.

Hasi baino lehen, zorionak, “zuen” urteurrenarengatik, eta eskerrik asko, gure buletinean parte hartzera animatzeagatik. Mesedez, kontaiezaguzue zer izan den zuentzat urteurrena eta nola ospatu duzuen.

Ángel Serdio. Gure herrialdean, EMPNren 100 urteak mugarri dira natura babestearen aldeko historian. Gaur esan dezakegu lehenbizikoa izan zela eta haren atzetik beste asko etorri zirela, eta, hala, aitzindaria izan dela gaur egun funtsezkotzat jotzen diren kontserbazio-politika askotan. Jarduera asko egin ziren Parke Nazionalaren urteurrena ospatzeko, eta aurten ere jarraitzen dugu, urteurrena 2019ko uztailaren 22an bukatuko baita. Errege Familiak irailaren 8an egindako bisita eta Espainiako Gorteek Senatuan 100 urteko bi parke nazionalak egindako omenaldia izan ziren ikusgarrienak.

Manuel Montes. 100 urteko zifra borobil horretara ailegatzea, egia esan, mugarri da edozein erakundetarako, eta, beraz, berdin gertatzen da Parke Nazional baten kasuan; gure Parkea aitzindaria izan da Covadonga Mendia Parkearekin (gaur egun



Ángel Serdio, Picos de Europa Parke Nazionalako Zuzendaria. Argazkia: Picos de Europa PN-a.



Manuel Montes, Ordesa eta Monte Perdido Parke Nazionalako Zuzendaria. Argazkia: Ordesa eta Monte Perdido PN-a.

Europako Mendiak) batera. Covadonga Mendia Parke Nazionala 1918ko uztailaren 22an sortu zen, eta Ordesa Ibarakoa, abuztuaren 16an. Gainera, Ordesa Ibarra edo Ara Ibaia Parke Naturala sortzen zuen Dekretuak bi Parkeen mugak zehazten zituen, beraz, esan daiteke “bikien erditzea” izan zela.

Urteurrena dela-eta, ekitaldi asko eta askotarikoak egin dira 2018an zehar; batzuk Aragoiko Gobernuak sustatu ditu eta beste batzuk, berriz, Parke Nazionalen Erakunde Autonomoak (OAPN). Halaber, aipatu behar da urteurrena Interes Publiko Bereziko Gertaera izendatu zela.

Artikutzan, 100 urteren ondoren, aldaketa asko izan dira. Pentsatzen dut zuen lurraldeetan ere gauza bera gertatuko zela. Kontuko diguzue zein aldaketa izan diren aipagarrienak 100 urteotan?

AS. Oroitarazi behar da Europako Mendiak Parkea dela Espainian biztanleak dituen Parke bakarra eta giza jarduera funtsezkoa dela parkea kontserbatzeko; izan ere, landa-mundua, basoa eta ohiko jarduerak modu orokorrean utzi izana izan da aldaketarik handiena, eta, gaur egun, parkearen biziraupenerako mehatxu handia da hori. Inguruabar horrek *reciella* abeltzaintzan (abere txikiak) izan du eraginik handiena eta modu oso nabarmenean gutxitu da azken urteotan. Eta abeltzaintza hori funtsezkoa da kontserbaziorako, baita EMPNean ekoizten diren gazten bariedade handirako ere, mundu osoan zehar eman baitiote ospea inguru honi.



Picos de Europa PN-a, mendi tontorrak Tanarriotik. Argazkia: Picos de Europa PN-a.

MM. Nire ustez, Parkea zabaldu izana da Parkearen historiako gertaerarik aipagarriena, eta, horrekin batera, Añisclo ibarrean proiektatutako zentral hidroelektriko bat eraikitzetik salbatu izana. Ugatzaren populazioa ugaritu izana ere aipatzekoa da; 20 urtez gauzatu da proiektu bat, eta, hartutako neurrien artean, mehatxatutako hegazti nekrofago horri elikadura osagarria ematea biltzen zuen. Aitzitik, Parke Nazionalak XX. mendean zehar bakarrik eutsi ahal izan dio bukardoen populazioari (alderdi frantsesean XIX. mendean desagertu zen). 2000. urtean hil zen azken bukardo emea eta horrek ekarri zuen espeziea desagertzea; Parke Nazionalaren izendapena berandu iritsi zen espezie horretarako; izan ere, lehen mendearen hasierarako, oso gutxituta zegoen, eta, ahalegin handiak egin baziren ere, ezin

izan zen saihestu hura desagertzea, baina, Parke Nazionala sortu izan ez balitz, zenbait hamarkada lehenago desagertuko zen.

Garapenari dagokionez eta jendeari begira, nola aurreikusi duzue behar berrietara eta publikoaren itxaropenetara egokitzea? Zer eskatzen du jendeak?

MM. Baliabide materialen eta giza materialen maila egokiari eutsi ahal izatea eskatzen da, honako hauetara bideratutako kudeaketarekin jarraitzeko: batetik, kontserbazioa eta, bestetik, interesak bateratzea kontserbazioaren eta garapen sozioekonomikoaren arteko oreka lor dadin; horretarako, beharrezkoa da bertako jendearekin inbrikatzea eta, batez ere, abeltzaintza-sektorearekin. Edozein kasutan, Parke Nazional batek kontserbazioa izan behar du beti helburu, eta kontuz ibili behar da hura arriskutan jar dezaketen erabilera berriak direla-eta sortutako itxaropenekin. Behar berriek kontserbaziorako arriskua ekartzen ez badute, erabilera publikoa eskari horretara egokitu beharko da.

AS. Parkean bizi den jendeak garapenerako eta beren jarduera ekonomikorako laguntza handiagoa eskatzen du batez ere; abeltzaintzan eta nekazaritzako elikagaien produktuen ekoizpenean oinarritzen da bereziki jarduera hori. Zerbitzu-sektore garrantzitsua ere badago, turismoaren inguruan bakarrik



Ilunabarra Tres Sorores-etan. Ezkerretik eskuinera: Cilindroa, Monte Perdido, Añisclo eta Punta de las Olas. Argazkia: Ordesa eta Monte Perdido PN-a.

antolatua (ostalaritza, landa-ostatuak, natura-turismoko enpresak, etab.).

Normalean etortzen diren bisitariek, zoritxarrez, ez dute garbi izaten Parkea zer den; oro har, hiri-girotik etortzen dira eta ohituta daude “zerbitzu” eroso eta kalitatezkoak eskura izatera, baina, askotan, zerbitzu horiek ez dira behar-beharrezkoak, ezta Parke Nazional batekin bateragarriak ere; hala nola ibilgailuetarako sarbideak, egokiak ez diren lekuetan ostalaritza-lokalak, inpaktu handiko aisialdi-jarduerak, etab. Askok lan egin behar da bisitarien hezkuntzan, bai bisitaldiaren unean bertan, bai bisitan etorri baino lehen.

Zuen erantzunak oso interesgarriak dira eta aintzat hartuko ditugu gure lursail txiki honetarako. Jarrai dezagun. Oro har, zer desafiari egin behar zaie aurre PN bat kudeatzean?



Tontorrak Vegabaño-tik. Argazkia: Picos de Europa PN-a.

MM. Aurreko atalean aipatutakoaren harira, natura- eta kultura-balioak zaintzeak eta horien erabilera publikoaren eskaerarekin bateratzeak eragina izaten dute garapen sozioekonomikoan. Goidenboralditik kanpoko eskaintza erakargarrien bidez saiatu behar genuke bisita gehienak sasoi bakarrean ez kontzentratzen, baina hori ez dago eskaintzaren mende bakarrik, Parkeaz gozatzen duen jende gehienaren oporraldiaren mende baizik.

AS. PEPNk, batez ere, bi erronka ditu hurrengo bi urteei begira. Alde batetik, Parkean eta haren eragin-lurraldean bizi den jendearen garapen sozioekonomikoa bermatu behar da, jendeaz hustu ez daitezen

eta ohiko jarduerak utz ez ditzaten, eta, beste alde batetik, PEPNk jasotzen duen bisita-kopuru handia arautu behar da (urtean 2 milioi baino gehiago); bisita horiek bi puntutan kontzentratzen dira batez ere, Covadongan eta Funten Dén, eta puntu horien kontserbaziorako arriskua ekar dezake.

Zuen ustez, zein izan daiteke PN bat eta BBZ txiki bat kudeatzearen arteko alderik handiena, kontuan hartuta gurea Nafarroan dagoela baina esku pribatuetan, alegia, Donostiako Udalaren eskuetan. Erronka eta zailtasun berak dituzte?

AS. Itxura batean, aldeek oso handiak ematen dute, baina beharbada ez dira hain handiak izango. Argi dago Parke Nazional batek eta, batez ere, Europako Mendiak Parkeak ahalmen izugarria duela, eta edozein egoerak edo jarduerak eragin handia du. Gainera, lurraldearen %90 publikoa da. Baina, hain zuzen ere, ahalmen horrek, batzuetan, araudi-zurruntasuna sortzen du, eta horrek, Parkean jendea bizi denez, arazo larriak ekartzen ditu eta biztanle askoren kontrako jarrera pizten du. Titulartasun pribatuko espazio babestu txikien kudeaketa nahikoa garatuta dago Europan zehar, baina, Espainian, ez da oso ohikoa; aukerez betetako erronka bat da, eta kudeatzaile guztiek ikasi behar genuke beren esperientziatik.

MM. Nire ustez, oro har ez du zerikusi handirik, baina zenbait puntu dituzte komunean, hala nola beren balioen kontserbazioa. Gure Parke Nazionala ere Natura 2000 Sarean dago, bi arrazoiengatik, Hegaztientzako Babes Bereziko Eremua eta Garrantzi Komunitarioko Lekua delako (Aragoin, Garrantzi Komunitarioko Lekuak oraindik ez dira Kontserbazio Bereziko Eremuak), eta UNESCOren figuren koroa hirukoitza biltzen du: Ordesa-Viñamala Biosferaren Erreserba, Pirinioak Monte




Gradas de Soaso, Cola de Caballo-ko bidean. Argazkia: Ordesa eta Monte Perdido PN-a.

Perdido Gizateriaren Ondarea eta Sobrarbe Pirinioak Geoparkea. Hori dela eta, kudeaketa konplexu samarra da, figura bakoitzak aintzat hartu beharreko espezifikotasun bat dakarrelako. Beharbada, horrelako Kontserbazio Bereziko Eremuek aurrekontu-arazo gutxiago izango dute Parke Nazional batek baino, kopuru absolutuetan aurrekontu txikiagoa badu ere, litekeena delako proportzionalki askoz handiagoa izatea azalera, bisitari-kopurua eta beharrak kontuan hartuta.

Buletin hau irakurtzen duen jendea mendizalea izaten da; hori dela eta, zer arrazoi emango zenizkiokete Parke Naturala bisitatzeko? Zer aurkituko dute han? Zer berezitasun ditu?

MM. Ordesa eta Monte Perdido goi-mendiko Parke Nazionala da, Europako mendigune karedun handiena. Antzerkiaren munduko terminologia erabiliz, esango genuke Parke Nazionala lehen mailako aktoreak (fauna, landaredia eta jendea, bai menditarrak bai mendizaleak) dituen konpainia bat dela, baina ikusgarriena haren agertokia da, munduan ez dago horrelako beste bat: plaka iberikoaren eta europarraren arteko talkaren ondorioz itsasoaren hondotik tontorretara igo ziren arroka sedimentarioak, eta glaziarrek eta ibaiek gerora modelatutako arroilak eta zirkoak. Parkean, mendizaleek mendi-ibilbideak eta alpinismoa egin dezakete Parkeko sarea osatzen duten



Ordesako bailararen sakontasuna. Argazkia: Ordesa eta Monte Perdido PN-a.

bideetan barrena; eskalada klasikoa egin dezakete Ordesa eta Pineta ibarretako zenbait paretatan dagoeneko irekitako bideetan (beste inguru batzuetan, baimena eskuratu behar da); eta mendiko eskia ere egin dezakete sareko ibilbideetan. Babeserako Ereku Periferikoan, Parkearen barruan debekatuta dauden jarduera batzuk baimenduta daude: espeleologia, zaldi-ibilaldiak, mendi-bizikleta, eta urarekin lotutako zenbait jarduera, hala nola arroila-jaitsiera eta bainatzea.

AS. Mendizaleei ez diezu azaldu behar non dauden Europako Mendiak, edo zer diren Espainiako eta mundu osoko alpinismoan. Desnibel handiak eta itsasotik hain hurbil egotea dira kareharrizko harkaitz izugarri horren ezaugarri nagusiak (2600 metrotik gora 10 kilometro lineal eskasetan). Gradiente horren ondorioz, oso eremu txikian (60.000 hektarea baino gehixeago), mota askotako mendi- eta natura-jarduerak egin daitezke, hala nola ibilaldi atseginak egin estatuko baso atlantikoaren adierazgarri hoberenen barna, tontor mitikoetara igo (Urriellu edo Peña Santa), eta oinak erabili gabe mendietara igo Bulnesko eta Fuente Déko teleferikoak erabiliz.

Tira, eskerrik asko buletin honetan parte hartzeagatik. Espero dut laster topo egitea, Artikutzan edo zuek ordezkatzan dituzuen paraje zoragarri horietako batean paseo bat ematen.

Gehiago jakiteko:

- <http://parquenacionalpicoseuropa.es>
- <https://www.ordesa.net>

SUAREN EPELEAN

Artikutzari buruzko argitalpenak

Normalean, buletin bakoitzean, gomendio bat ematen dizuegu irakurtzeko, baina, oraingo honetan, laburpen bat egin nahi izan dugu, Artikutzako balioak zabaltzen modu batean edo bestean lagundu duten pertsona guztientzako omenaldi gisa. Artikutzari buruzko argitalpenen zerrenda bat duzu jarraian, baina, segur aski, baten batek ihes egingo zigun.

Liburuak


- *Artikutzako trenak*. Anton Mendizabal, Suberri Matelo. Oiartzungo Udala.
- *Rutas y paseos por Aiako Harria y Artikutza*. 1997. Mikel Arrizabalaga. Sua edizioak.
- *El agua potable en la historia de San Sebastián*. Fermín Muñoz Etxabeguren. Aguas del Añarbe S.A. Añarbeko Urak. 2003
- *Artikutza. Toponimia actual y antecedentes históricos*. Mikel Erriondo. Gobierno de Navarra. 1988
- *Artikutza – Bisitariaren gida*. Eneko Agirre Iraeta. 2003. Donostiako Udala.
- *Guía ecológica de Artikutza (Naturaleza y huella humana)*. Autores: Pilar Catalán, Iñaki Aizpuru, Pedro Areta, Iñigo Mendiola, Luis del Barrio e Iñaki Zorrakin. 1989an Donostiako Udalak eta Aranzadi Zientzia Elkarteak argitaratua.
- *Roncesvalles en Guipúzcoa III- la desamortización en Articuza y Cegama*. Jose M. Mutiloa Poza. 1976, Zarautz, Ediciones Caja Guipúzcoa.



2017. Mugarri,

Mapas

- *Mapa de Artikutza*. Etnogintza C.B. (Luis del Barrio eta Luis Zaldúa), Donostiako Udala, 1994.
- *Artikutza Mapak eta Ibilbideak*. 2016. Galemys- Donostiako Udala.
- *Artikutza – Mendaurren*. Imanol Goikoetxea eta Aranzadi Zientzia Elkarteak.



IRUDIEN GALERIA

Artikutzan ateratako argazki bitxi edo kutunen bat gurekin partekatu nahi baduzu, bidali iezaguzu honako helbide honetara: artikutzanatura@donostia.eus! Horrekin batera, bidali zure izen-abizenak eta aipatu noiz edo nola atera duzun argazkia eta idatz ezazu harentzako izenburu bat.

Artikutzako Ttanttak” buletina jaso nahi baduzu...



Etzanlekun pasean. Argazkia: Gurutz Echaniz

Bidali zure datuak (izena, abizenak eta posta elektronikoaren helbidea)
artikutzanatura@donostia.eus helbidera eta posta elektronikoz jasoko duzu.

Halaber, jarduera bat egin nahi baduzu edo informazioa jaso, jarri gurekin harremanetan.

Telf.: 620 337 875



Bizitza eztanda. Baso-igel gorriaren arrautzak. Argazkia: Asier Santana



Zurgintza Artikutza SA. Argazkia: A. Santana



Zi-Za. Argazkia: M. Blázquez



Ardagaia. Argazkia: A. Santana



Esnatzen. Argazkia: A. Santana



Uretatik kanpo.... Etorkizun latza! Argazkia: A. Santana



Inside out. Argazkia: A. Santana



Elamako bailara Loitzatetik. Argazkia: A. Santana



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN
Ingurumena
Medio Ambiente

